

Ürrüstoi-Larrabile

Aurkibidea

Udalerria: Ürrüstoi-Larrabile

Sarrera



Ürrüstoi eta Larrabile herriek osatzen duten Zuberoako udalerria. Pettarra eskualdean dago, Biarnoko mugan. Herri honetakoa da Jean Louis Davant idazle eta euskaltzaina.

- **Biztanleak:** 96
- **Euskaldunak:** %60,19

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **4**
- Pasarteak: **65**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **55**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

André Barneche (1950)



Pettarra eskualdeko Urrüstoi herrian jaioa eta bizitakoa. Grabaketa egin baino apur bat lehenago hartu zuen erretreta. Elkarrizketan bere emazte Alejandrak eta aitatzik ere hartu zuten parte.

Jean Louis Davant (1935)



Zuberoako Pettarra eskualdeko Ürrüstoi-Larrabilen (Larrabilen) jaio zen eta herri berean bizi da. Laborantza ikasketak egin zituen eta Hazparneko Laborantza Eskolaren sortzaileetarikoa izan zen. Eskola horretan egin zuen lan 35 urtez irakasle gisa. Politikan aritu zen Enbata mugimenduan eta EHAS alderdian. Euskaltzain osoa da 1975etik. Obra zabala du idazle gisa: pastoralak, poesia liburuak, saiakerak, artikuluak, nobela bat...

Jean Pierra Davant (1933)



Zabalain etxekoa, Larrabilen sortu zen. Bost anai arrebetarik gehiena. Aita etxondokoa zen eta ama, Iratçabal sortzez, Altzaikoa. Bost urtetan eskola hasi zuen, Maulen lehenik eta ondotik Urrüstoi herrian. Jean Pierra ona zen eskolan, baina argi zuen ikasketak ez zituela segituko, aitaren segida hartuko zuela etxean. 14 urtetan zertifikata gainditu zuen, Saint-François kolegioan hiru bat hilabete pasa zituen ere eta eskola horretan utzi zuen. Laborantza izan du ogibide, eta aktibo izan da laborantzako aldaketetan, euskaldun gazteria mugimenduan parte hartuz bai eta ondotik laborari sindikatetan: FNSEA eta ondotik ELB. Sortzez Hostakoa den andere batekin ezkondu zen, eta hiru haur ukan zituzten elgarrekin. Bere gurasoak euskaltzale ziren, eta Jean Pierra ere bai: haurrak ikastolara joan dira. Hiru pastoraletan parte hartu du.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Eskiulaz eta Biarnoko hizkuntzez

- **Hizlaria(k):** Davant, Jean Louis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ULA-002/031
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:48:25. **Bukatu:** 00:50:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etchegorry, Philippe
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena:** Eskiula Biarno da administrazioaz baina euskaraz egiten da. Badirudi Barkoxe eta Eskiula aldeak Zuberoako euskaldunek birpopulatu zituztela. Nolanahi ere, Biarnon euskaraz mintzatzen zen XIV-XV. mendera arte.

Transkripzioa

-Eskiula, hori zer, Biarnoko herria, baina, euskaraz mintzatzen dena, holako zerbait, ez?

-Biarnoko bizkude herrian egin nahi izan zen, beraz, Barkoxerik eta Atharratzerik eta, beharbada, Amiküzerik ere joan ziren euskaldünak hor plantatü ziren hütsik ziren lür eli batetan. Eta ordian zonbaitek erraiten düe Biarno euskaldünaren ondar bat dela, eta ez da hala, hor. Hor gaüzak hanitx aski ontsa dokümentatürük dira, badakie noiz eta nola sortü ziren horko etxaltiak eta. Egia da lehenago euskaraz egiten zela Biarnon ere. Parte handi batetan galdü zen hamargerren mentetik, eta heben, Xiberoko Ühaitz ibaiaren peko aldian Biarnoko herriak üdüriz bi hizkuntzetan ari ziren hamalagerren mente ondarrealat.

-Zer... horiek, Landa ta horiek, edo...

-Ez, heben, Xarrikotapiaren eta Salbaterraren arteko herriak.

-Ah, horiek.

-Horiek eta...

-Azpilda, eta...

-Bai, zeren etxeek, hor, bi izen bazütüen, izen bikoitxa bazizüen, euskaraz eta biarnesez, bietara. Hala. Eta ber erran-nahiarekin. Eta hor pentsatzen da bi hizkuntzetan ari zirela. Beraz, hor euskara galdü zatekian hamalau-hamabosgerren mentetan. Eta pentsatzen da Landan, eta alde hortan ere, Aramitzen, hamabosgerren mentian galdü zatekiala.

-Eta hor, Akitania, Bigorre eta...

-Hor, lehenago, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Makiek bi soldadu aleman hil (ULA-001/001)

Makiak Zuberoako oihanean ezkutatzen ziren. Bi soldadu aleman hil zituzten, eta mendeku gisa alemanek Sarrikotapeko bi etxe erre zituzten.

2. Zaharrak mintzatzen dira euskaraz baina gazteak gutxi (ULA-001/004)

Zaharrak mintzatzen dira euskaraz, baina gazteak gutxi. Seme-alabek konprenitzen dute eta zaharrenak egin ere bai. Seme gazteena arotza da lanbidez.

3. Larzabaleko ikastolara Zuberoatik (ULA-001/006)

Larzabaleko ikastolara joaten dira euskaraz ikasi nahi duten ikasleak. Sohütara txikienak. Autobusez joaten dira Larzabalera. Herriko eskola itxita dago aspaldi.

4. Aitañi igandero Maulera mezara (ULA-001/008)

Mezarik ez dute herrian bi hilabetetarik behin bakarrik. Aitañi (aitona) Maulera joaten da igandero. Aitañiren irudia.

5. Nahikoa egur sutarako (ULA-001/011)

Gaztainadi onak badira herrian. Haritza, haltza, lizarra, pagoa..., denetik dago basoan. Nahikoa su-egur dute.

6. 'Arrailoba' eta 'arrasemea' (ULA-001/013)

Lexiko kontuak: 'arrailoba', 'arrasemea', 'arralaba'. Larraine aldean ezberdin egiten omen da euskaraz.

7. Kautxu-lantegian erretreta hartu arte (ULA-001/017)

Kautxu-lantegian ekoizten zutena: oilaskoak lumatzeko gaiak, armadarako misilen estalkiak eta abar

8. Pauera lanera Zuberoatik (ULA-001/018)

Lantegiez komentarioak. Anitz itxi dira Zuberoan, espartin-fabrika bereziki. Pauera-eta joaten da jendea lanera.

9. Hiru txerri etxerako (ULA-001/020)

Lau txerri hazten dituzte, horietarik hiru etxerako. Txerriak nola apailatzen duten: urdaiazpikoak, lukainkak, tripotak eta beste.

10. "Oso" eta "anitx" Zuberoan (ULA-002/001)

Lexikoaz. "Oso" gutxi erabiltzen da Zuberoan graduatzaile gisa baina Gillaume Epherre Altzürükütarrak esaten zuen. "Anitx on" da erabiliena Zuberoan.

11. Lapurtera galtzear (ULA-002/003)

Lapurtera ia galdurik omen dago eta pena da. Idatzi ere gutxi egiten omen da. Zubi luzeegia geratzen da Zubereraren eta batuaren artean. Zubererak badu, bere apalean, bizitasuna: pastoral idazleak, prosalariak, kantugileak...

12. Euskarari esker lortu zuen ikastetxe baten ikasteko beka (ULA-002/005)

Euskarari esker "menzione" bat izan zuen eskolan Jean Louis-ek, eta beka bat jaso zuen ikastetxe batean ikasi ahal izateko. Bere bi alabek ere euskarari esker aurkitu zuten lana.

13. "Zohardia", gau izartsua (ULA-002/007)

"Zohardia" gau izartsuari esaten zaio. Orain zenbait gaztek egun garbiaz ere badioete. Ikastolako haurrek hiztegi zabalagoa ikasten dute, baina berak aholku ematen die denei zaharren euskarari ere erreparatzeko. Modak joan eta etorri egiten dira.

14. Zuberotar batua eta Zuberoako idazleak (ULA-002/009)

Bada zuberotar batua. Klasikoa, elizatik zabaldu dena. Hainbat idazle izan da Zuberoan: Belapeire, Intxauspe..., eta honantzago etorrita, Casenave, Mirande, Peillen eta abar, kantoreen egileez gain.

15. Zuberoako euskara antzekoa da leku guztietan (ULA-002/010)

Zenbait txokokeria zabaltzen ari da Zuberoan, eta bera forma klasikoei atxiki zalea da, erdiko zuberotarrarekin bat datorrena. Antzera egiten da euskaraz Zuberoan: Pettarra eta Arbailatan berdintsu. Basabürüan hitzak osoago esaten dituzte. Barkoxen, nahiz eta Basabürüan egon, Pettarrako euskara egiten da gehiago.

16. 'Etxahun' koblakaria, baina idatziz (ULA-002/011)

Esan da Barkoxeko Etxahun koblakaria (bertsolaria) zela, baina ez dago horren frogarik. Idazlea zen, idatziz ontzen zituen bertsoak. Hizkuntza diferentziak.

17. Hiketaren alde (ULA-002/012)

Zuketaz eta hiketaz azalpenak. Hiketa ez da itsusi. Frantsesezko eta gaztelerazko "hi" gogorragoa da, harkoiagoa.

18. Ikastoletan gizonezkoak ere irakasle izatea ona da (ULA-002/013)

Barkoxen-eta oraindik erabiltzen da hiketa. Lehenago gehiago erabiltzen zen Zuberoan. Batzuek oker darabilte, zaharrei egiten baitiete hika. On da ikastoletan gizonezkoak ere irakasle izatea.

19. Baxenabarre eta Nafarroa Beherea (ULA-002/014)

Baxenabarre eta Nafarroa Beherea, bi izen baziren eta hirugarrena sortu da: Baxenafarroa. Bera ez da horren aldekoa. Ez dute aintzat hartzen belaunaldi zaharra.

20. -sa, atzizki femeninoari buruz (ULA-002/015)

Zuberoan eta Nafarroa Beherean -sa atzizkia erabiltzen da: artzainsa, sekretarisa, ostaliersa... Emakundek Euskaltzaindiari galdetu zion horren erabileraz eta honek erantzun ez zela erabili behar, betidanik erabiltzen zen lekuetan salbu. Iparraldean anarkia hutsa omen dago, bakoitza bere gisa omen dabil.

21. Lexikoaz galdezka (ULA-002/016)

Trumoi eta tximista esateko Zuberoako hitzak.

22. Davant pastoral egilea (ULA-002/019)

Bederatzi pastoral idatzi ditu, sei emanak dira eta bi urte barru eman;tan emango da beste bat. Pastoral zer den azaltzen du.

23. Pastoraleko jantziak (ULA-002/020)

Lehen beti jantzi berdinak erabiltzen ziren pastoraletan, gorriek alde batetik eta zuriek bestetik. Azken 30-40 urte, berriz, hauetan epokako arropak jantzen dituzte. Gipuzkoar batek diseinatzen ditu azkenaldian.

24. Pastoraleko musika (ULA-002/021)

Txaranga batek jotzen zuen lehen, baina orain orkestra txiki bat izaten da.

25. 1980ko hamarkadan emakumeak pastoraletan jokalaria gisa (ULA-002/022)

1980 aldera hasi ziren emakumeak emakume rolak egiten, Urdiñarben. Ordura arte emakumerik ez zen aktoreen artean. Baina emakumez soilik osaturiko pastoralak ere jokatu izan ziren lehenago.

26. Pastoraletako sujeten aldaketa denboran zehar (ULA-002/023)

Santuak, Frantziako erregeak eta horrelakoak izaten ziren pastoraletako protagonistak. Gero Etxahun Iruri hasi zen Matalaz, Iparragirre, Santxo Azkarra eta horrelakoak sartzen. Etxahun Iruriz komentarioak.

27. Zuberoako pastorgileak (ULA-002/025)

Mende laurden batez Etxahun izan zen pastorgile bakarra. Gero Junes Casenave agertu zen. Harrezkero Berzaiz, Bedaxagar, Idiart, Davant bera eta beste hainbat izan dira. Berak egindakoak izendatzen ditu. René Cassin, Aita Lande eta Nafarroako Blanca dira idatzita baina oraino eman gabe daudenak.

28. Pastoral laburtuz poliki-poliki (ULA-002/027)

2-3 egun irauten omen zuen pastoralak iragan aspaldian. Bere ama gazte zelarik, egun osoa, sei ordu. Laburtzen joan da eta orain hiru bat ordu irauten du. Lehen baino aktore gehiagok hartzen du parte, eta sartu-irtenetan joaten da denbora asko.

29. Errejenta edo zuzendaria (ULA-002/028)

Errejenta (zuzendariak) antolatzen du dena. Urtero egiten da pastoralak. Inoiz urtean biga egin dira. Baina arriskutsua omen da, batak bestea estali baitezake.

30. Zuberoako eskualdeak (ULA-002/029)

Aldiko herri batek ematen du pastoralak, edo eta hainbat herrik elkar hartuta. Pettarrako herriak zeintzuk diren. Barkoxe Basabürüa da. Arbaillako herriak zeintzuk diren.

31. Biarnoko pastoralak (ULA-002/030)

Europar ematen zen teatro zahar baten hondarra omen pastoralak. Biarnon ere bada pastoralak. Landan Casenavek egindakoa eman zen, frantsesez. Aspen ere ematen da, baina egitura ezberdina du; biarnesez izaten da.

32. Euskararen egoera Zuberoan (ULA-002/033)

Zuberoan zaharrak euskaldun, gazteak erdaldun eta tartekoez anitxez jakin eta gutxi egin. Euskarak behera egingo zuela gauza jakina zen; orain, ikastolari, gau-eskolari eta irratitari esker bada itxaropen apur bat. Baina ofizialtasunik ez da lortu.

33. Euskara eskolan (ULA-002/034)

Frantsesaren indarra izugarria da. Lehen debekatu egiten zen eskolan euskara, eta oraindik ere bai zenbait lekutan. Eskola elebidunak ere bada. Euskaraz jakitea ez da eragozpen frantsesa ere ongi egiteko.

34. Zertarako ingelesa horrela sartu eskolan? (ULA-002/036)

Orain nahi eta nahi ez sartu nahi dute ingelesa eskolan. Ez zaio egokia iruditzen. Ingeles txarra erabiltzen da munduan.

35. Davant idazlea (ULA-002/037)

Umetatik idazteko pasioa izan du. Sei olerki-liburu eta bederatzi pastoral ditu eta artikulu anitz kasetetan. Egun ere bost kasetetan idazten du. Izendatzen ditu.

36. Davant euskaltzain osoa eta politikaria (ULA-002/038)

1975ean sartu zen Euskaltzaindian. Harrezkero politika gutxiago eta euskararen alde gehiago egin du. Enbata eta EHAS alderdi politikoetan ibilia da.

37. Euskaltzaindiko hiztegi batuko batzordekidea (ULA-002/040)

Lan asko egiten da Euskaltzaindian. Hiztegi batuko batzordean dago, hilean behin bitzen dira Donostian. Batzordekideetariko asko euskaltzain urgazleak dira.

38. Zubereraz ama eskolan eta lehen mailatan (ULA-002/043)

Ama eskolan eta lehen mailatan zubereraz ikasten da Zuberoan. Bigarren mailan, batura igarotzen dira.

39. Zuberoako eta Lapurdiko hitzak hiztegi batuan (ULA-002/045)

Batuko hiztegia oso zabala da; Zuberoako hitz klasikoak ere hainbat sartu dira. Lapurdikoekin gauza bera gertatzen da. Euskalkie eutsi behar zaie; hala ere ez du zentzurik Baionan lapurtera bultzatzeak, horretarako dago batua. Berak pastoralak eta laborarien kazetako artikuluak zuberotarrez idazten ditu.

40. Batuan aisago idazten du (ULA-002/046)

Batuan aiseago idazten du erregistro zabalagoa duelako, batez ere olerkian. Zuberoan poesia bukolikoa idatzi da batez ere; besteetan erregistro zabalagoa dago.

41. Haurtzaroa : eskola 1930-1940 hamarkadetan (ULA-004/001)

Herriko eskolan ibili da, etxetik hurbil. Berrogoi bat haur kondatzen zen garai hartan eskolan. Familiak handiak ziren : gehienak 7 haur ingurukoak.

42. Katixima (ULA-004/002)

Joanak katixima segitu du lehenik Gabadin (oinez joaiten zen), ostegun goizetan, Bidart erretorearekin. Apeza xahartu zelarik, De Castelbajac anderearekin bildu ziren Amenduzeko haurrak, 2 aldiz astean, katixima frantsesez emana izan zaiotela lehen aldikotz. Neskak eta mutikoak batean ziren, bai eskolan, bai katiximan.

43. Etxetiargoa eta aferma Amenduxen (ULA-004/003)

Joana Davant, sortzez Idiart, etxetiar alaba da. Kondatzen digu zein ziren etxetiargoaren baldintzak : jabeari ematen zitzaion ogiaren erdia, 10 arto saskietarik 4, behien eta ardien salmentaren erdia, xingar azpi bat eta 2 antzara. Etxeko nagusi gehienek ez dute errexki onartu etxetiargotik afermara pasatzea.

44. Haurtzaroa Amenduxen : jostatze eta lan garaia (ULA-004/004)

Nahiz haurrentzat ere lan frango bazen etxeetan, Joana oroitzen da besta giroan iragaiten zirela lan elgarretaratzeak : arto xuhitze eta ogi joiteak.

45. Iturria, bilgune (ULA-004/005)

Plazako jendea etortzen zen urketa iturrira (ponpa bat bazen). Leku hori maiz haurren eta gazteen bilgunea zen. Noiztenka, iturria agortzen zen : kasu horretan, erre kara joaitea behartuak ziren. Joana oroitzen da, ama eri zenean, erre kara joanik bokata garbitzera..

46. Bokata (ULA-004/006)

Gerla denboran, xaboina etxean egiten zen, beste gisan erosten zen. Joana Davant oroitzen da etxeko andereak xuriketak hautsarekin egiten zituela. Joanaren aitamak emazte horren etxetiarrak izanik, aita bokataz bete orga De Castelbajac-en iturriko latsarrira eramaiten zuen, etxeko andereak emazte bat enplegatzen zuelarik xuriketen egiteko.

47. Berrikuntzak Amenduxen (ULA-004/007)

Argindarra 1932an ezarria izan da Amenduxen, ura 1953-1954 urtetan.

48. Bidart apeza, Amenduzeko erretor (ULA-004/008)

Bidart erretora eskolatua zen, Erroman gaindi teologia ikasten ibilia. Joanak ez du ulertzen nola Amenduzeko erretor izendatua izan zen. Jakintsuna izanagatik, sinplea eta argia zen. Belarrekin sendatzen bazakien, Joanaren iduriz liburuetan ikasirik. Erretorak zuen jendea artatzen : bere anaiaren

etsenplua emaiten digu Joanak. Elizako urratsei buruz, jarrera malgoa zuen : adibidez bezperatik landa mutil-neskek dantza jauziak ikasten zituzten elgarrekin. Maitatua zen.

49. Amenduzeko ostatua (ULA-004/009)

Ostatu bat bazen herrian. Susana etxeko andereak gazte sala bat ematen zien dantzan aritzeko. Kartetan ere ari ziren baina ez zuten edaten, ez baitzuten sosik.

50. Herriko bizia : emazte baliosa bat (ULA-004/010)

Joanak ezagutu du mediku baten etxean arizana zen alarguntsa bat, bi alaba eta bi iloba hazten zituena. Garbiketa egiten ibiltzen zen, pikura eta lotura egiten ikasia zuen. Joanaren ama haur ukan berria zelarik, andere hori etxera etortzen zitzaion etxeko lanetaz eta haurretaz arduratzeko. Bortitza zen baina baliosa. Ez zen herrian erizainik.

51. Elizan sartzea (ULA-004/011)

Joanaren amak, zortzi haur ukanik, egiten zuen zeremonia hori. Oroitzen da behin, hotz handia egiten zuenbategi, Bidart errektorak ama eliza zolatik barnera sarrarazi zuela. Gizon biziki humanoa zela adierazteko, beste adibide bat emaiten digu Joanak : igande goiz batez, haurrak mezara barurik jinik eta eguraldia arrunt txarra izanki, errektorak gelariari manatu zion hurrei gosaria emateko.

52. Gerla deklarazionea eta alemanekilako harremanak (ULA-004/012)

1939an Joanak 7 urte zituen. Oroitzen da herrian ospatu azken bestetaz 1938an : besta alaiak. Ondoko urtean, gerla deklaratu zenean, Joanaren anai baten bataio eguna zen : herriko eta inguruetakoz ezkilak entzun ziren, bere osaba gerlara partitu zen. Urtero, herriko gazteak gerlara zoazin, herria hustuz. Alemanek Amenduzeko etxe guziak bisitatu zituzten eta batzu rekisizionatu. Eskola herriko etxean emana zen. Gerla garaia alemanen erritmoan iragan zen, Petain marexalaren irudia etxe guzietan zagoelarik. Mesfidantza eta lotsa nagusi zen herritarren eta alemanen artean, nahiz ez zen gertakari larririk izan .

53. 1939-1945ko gerla : errefuxiatuak eta kostaldeko haurrak (ULA-004/013)

Iparraldetik zetozen errefuxiatuetan, Joana oroitzen da neska eleganteetaz baita pertsonaia bitxi batzuetaz : Pariseko banku-jabe judu bat (Le Hideux izenekoa), beste batzu ustez miliziarak . Baiona- Biarritzeko haurrak Gurutze gorriak edo parropiek igorri zituzten, gosetea zelako. Errazionamendu tiketak hurrek egiten zituzten, eskolan. Gerla denboran azukrea, xokoleta eta liranjak eskas ziren. Joanaren etxean, hurrek egunean behin azukrea bazuten, burasoek aldiz esnean gatza ematen zuten.

54. 1939-1945ko gerla : harremanak presoekin eta soldadoekin (ULA-004/014)

Etxe guzietan, baziren preso zaudenak, hurrek idazten zieten. Zerbait berezi erran beharrean, euskara erabiltzen zen baina Joanaren osabak abisatu zituen gutunak zentsuratuak zirela. Beraz abilki jokatu ziren : osabak deszifratu zezazkeen letra batzu han hemenka idazten zizkieten, euskarazko mezua

berrosatu zezan. Ororen buru, berriak beti ukaiten zituzten . Familiek eta herriak janaria igortzen zieten, hortarako bestak antolatzen ziren.

55. 1939-1945ko gerla : zona okupatua, gordekako bidaiak (ULA-004/015)

Joanak gertakari bat xeheki kondatzen digu. 1944ko martxoaren 20a, hotz handia kanpoan, soldado ingeles batek jo zuen etxeko atean, bere hegazkina eroririk laguntza galdez. Deusik ez baitzioten ulertzen, ingelesa zakien Le Hideux banku-jabe judua deitu zuten. Beztitu zuten, jaterat eman zioten eta herriko hiru gaztek gauetz gau eraman zuten Donapaleuko laborari etxe batetara. Handik Espainiara joan zen.

56. Donapaleuko menaiu zentroa (ULA-004/016)

14 urte arte Amenduzeko eskolan egon ondoan, hiru urte iragan ditu Joana Davantek Donapaleuko menaiu zentroan. Formakuntza berria, ainitz preziatu duena, gai teknikoak eta praktikoak lantzen baitzituen : haurren haztea, laborantza, zuzenbidea notario batekin, eritasunak mediku batekin, sukaldaritza, joste eta etxeko lanak. Serorek zuzentzen zuten zentroa, ez zuten dirurik hartzen janaria baizik : arroltze, gasna, xingar...

57. MRJC batasunean militante (ULA-004/017)

Bidart apeza xahartu zelarik, Chipy apeza etorri zen Amenduzera. Harek zuen herriko gazteriarri MRJC mogimenduan parte hartzea proposatu. Garai hartan, Pariseko kongresu handia iragan zen : gazteak probintziaka paristarren etxeetan aterbetuak ziren. Euskal Herrian, Miren Morbieux eta Baiona Santandreseko erretor batek zuten laborari munduko gazteen batasun hau bultzatu, Idieder omonierri esker garatu dena. Unibertsitate bat bezala funtzionatzen zuen : kurtsoak, gogoetaldiak, ateraldiak... Herri guzietan ordezkariak baziren.

58. MRJC batasunaren Gazte aldizkaria (ULA-004/018)

Mogimenduaren kaseta zen Gazte. Herri guzietan baziren saltzaileak eta berri emaileak. Idazle batzuen izena zerrendatzen du Joanak : besteak beste Ahamendaburu, Ttale Ouret, Michel Epherre, Jean Irigaray, Henri Duhau, Jean-Louis Davant bere senarra, Piarres Xarritonen inguruan. Joanak ainitz ikasi du euskararen idazkeran kasetaren bitartez.

59. Aljeriako gerla (ULA-004/019)

Jeannek hurbiletik eta urrunetik bizi izan du Aljeriako gerla. Lehenik, Euskaldun Gazterian, Piarres Xarritonek nahi izan zuen torturaren kontrako delibero bat harrarazi, ez zuen lortu. Bestalde, Joanaren hiru anaiek eta bere senar gaiak gerlan parte hartu zuten : oroitzapen txarrak, tabou zen horien aipatzea. Joanaren anai batek bereziki itsuskeri asko ikusi ditu. Denak saminduak gelditu dira gerla horren ondorioz.

60. 1914-1918 gerla (ULA-004/020)

Joanaren aitak, 18 urte zituela, Verduneko frontera joan behar izan zuen 1916an. Joana oroitzen da urtero, azaroaren 11ko ospakizunak segitzen zituela eta lagun hurbilenak etxean biltzen. Gerlako gertakizunak kondatzen zituzten. Bereziki bi lagun zituen aitak : bat, Jean-Pierre Etcheverry apezaren aita, salbatu zuena ; bestea Donapaleuko Thicoipe, zauri baten ondorioz zango bat galdu zuena. Joanaren aitak bala zilo bat zaukan gorputzean.

61. "Emazteek diote" elkarte (ULA-004/021)

Hazparnen sortu zen elkarte hau, ikastolaren inguruan eta honen laguntzeko : emazteak biltzen ziren eta panpinak josten zituzten, saltzeko. Ondotik, gogoeta gune bilakaturik, beren arteko berri eta arrangurak agertzen zituzten : familia plangintza, haur zaindegi baten sortzeari buruzko inkesta bultzatzea, Weil legea etabar... Donapaleun proiektu berriak sortu ziren : formakuntzak emazteentzat, tailierrak (besteak beste joste tailier bat). Hilabete guziz biltzen ziren Hazparne Eihartzean.

62. Pariseko Euskal Etxearen sortzea (ULA-004/022)

1951tik 1958ra Joana Parisen egoiten da, ahizpa bat jadanik han du. Ehunka gazte bazoazin Euskal Herritik Parisera : 3 000 garai hartan. Joana oroitzen da Miren Morbieux-ri esker, Euskal Herriko MRJC mogimenduaren sortzaileetariko bat, etnografiaren arduraduna zena Pariseko Gizonaren Museoa, museo honen bisita egin zuela. Joanak kondatzen du ere xeheki, Piarres Xarritonen inguruan eta beste gazte andana batekin, inplikatu zela Pariseko euskaldunek bilgune bat ukan zezaten. Etxea erosteko momentuan, Terrier apezpikuaren bermea lortu zuen. Euskal Herrian, eskeak eta ekitaldiak antolatu ziren dirua biltzeko. Parisen zauden 3 000 euskaldunen gana ere jo zuten laguntza galdez.

63. Gizon-emazten arteko harremanetaz (ULA-004/023)

Joanak bere ikusmoldea ematen digu feminismoaz. Beti harreman onak ukan ditu gizonekin. Bere sortetxean, aitamek elgarrekin hartzen zituzten erabakiak eta amaren hitza garrantzitsua zen. Haatik, Joana borrokatzen da gizonek egin legetaz eta heien nagusigoaz.

64. Emazte euskaldun fededuna (ULA-004/024)

Joanaren ikuspegitik bada alde batetik girixtinoen ikusmoldea, bestaldetik legea. Beti biak bereizi ditu eta deliberoak bere kontzientziarekin hartu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com